

dicho, de objetos industriales, á los mismos que aparezcan en segundo orden de mérito, y algunas obras de arte ó diplomas á los que se consideren pudientes.

San Sebastián 28 de Marzo de 1895.—*Juan Echeverría*.—*Cornelio Garay*.—*Luis Zurbano*.—*Jesús M.^a Echeverría*.—*Manuel Lizariturry*.

AITA SAN MIGEL-GOIAINGERU EXCELSIS-KOARI

KANTA-EDER EDO GOZITZAK



Laukoa

*¡Aita San Miguel; zu zera gure
Ta aingeru danen Gidari;
Pekatariorok-geranon-alde
Erregutu zuk Jaunari.*

Zortziko-kantaldiak

Aita San Migel, aingeru danen
Nausi zerana zeruan,
Jaungoikoaren onra gordetzen
Miragarrizko moduan;
Alcha-ziñana garailaria
Luzifer-darren guduan;
Lagun gaitzatu gabiltzan danok
Etsai artean munduan.

Etsai artean gabiltza emen;
Arren begira lurrera;
Begira nola Luzbel gaiztoa
Alderatzen dan urrera;

Begira, nola griña okerrak
Alkartzen diran batera;
Atoz gugana; gure indarra,
Aita San Migel, zu zera.

Zure ta zere lagunen bidez
Jaungoiko Guzialtsuak
Zuzentzen ditu mundu onetan
Gizon gaisuen patuak;
Nola oi ditu Ama on batek
Umechoaren pausuak,
Olluak nola bere aldean
Bere chitacho gajuak.

AITA JOSÉ IGNAZIO ARANA-K.

